

Julian Gaiarre, gertuago

Erronkariko tenoreari buruzko anekdotak bildu ditu Oscar Muñozek liburu batean

Eduñe Elizondo / Iruñea

Erronkariko tenore handi Julian Gaiarrereri buruz idatzi liburu aurkeztu zuen Oscar Muñoz musikari iruindarrak atzo, Iruñean. Julian Gaiarre Fundazioak plazaratu du, eta, Gaiarrereren bizitzari eta obrari buruzko argibideak, agiriak eta argazkiak ez ezik, tenorearen inguruko bitxikeria eta anekdotak ere bildu ditu egileak, haren alderdi humanoena nabarmen-tzeko asmoz.

JULIAN GAIARRE tenore erronkariarrari buruz idatzi du Oscar Muñoz musikari iruindarrak bere aurreneko liburu. Duela hiru urte hasi zen Gaiarrereren obra eta bizitzari buruzko argibideak, agiriak, argazkiak eta bitxikeriak bilatzen eta biltzen, eta aurkitutakoa paperean jarri du, nafar guztiek irakur dezaten. Atzo liburu aurkezteko egindako agerraldian azaldu zuenez, «Erronkariko tenorearen bizitza eta obrari buruz gehiago jakin nahi dutenentzat abiapuntua» izan nahi du *Julian Gaiarre. Como el de casa ninguno* izenburuko liburuak, tenorearen hurbiltzeko bidea, alegia. Julian Gaiarre Fundazioak plazaratu du, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz.

Muñozek argi utzi zuen bere lana ez dela Gaiarrereren biografia osoa, ez baita egilearen asmoa izan Erronkariko tenorearen ibilbideko data



Oscar Muñoz atzo, liburuaren aurkezpen ekitaldian.

eta gertakizun guztien zerrenda egitea; Muñozek, tenorearen izaerari erreparatu dio, batez ere, eta lekukotasun, gutun, agiri eta bitxikeria eta anekdoten bidez, Gaiarrereren alderdi humanoena hurbildu nahi izan dio irakurleari. «Gaiarrereren eskuza-baltasun, umiltasun eta zintzotasuna agerian uzten duen liburu atsegin eta irakurterraza da», esan zuen.

1996an hasi zen Muñoz, kasualitatez, Julian Gaiarrereri buruzko informazioa biltzen eta aztertzen, aurretik Pablo Sarasate, Jose Mendioroz edo Hilarion Eslava musikariekin egin bezala. Gaiarrereren bizitza, obra eta nortasunak harrapatu egin zuela aitortu

zuen egileak atzoko agerraldian, eta, konturatu zenerako, liburu osatzeko adina material bazuela. Plazaratu berri duen lanak, hain zuzen ere, ez du Muñozek aurkitutako guztia bildu, eta, hori dela eta, bigarren zatia kaleratzeko konpromisoa hartu zuen atzo, jendaurrean, musikari iruindarrak.

Bizirik, hil ondoren

Bere liburu osatzeko, Erronkariko tenoreari buruz idatzitako beste obretara, Julian Gaiarre Museoa gorde dauden gutun eta agiri-tara eta garaiko prentsara jo du Oscar Muñozek. Prentsa-ko artikuluak, batez ere,

Gaiarrereren ahotsari buruzko kapitulua osatzeko erabili ditu egileak. Musikariak tenorearen talentu eta gaitasuna nabarmendu zuen atzoko aurkezpenean, baina liburuan Gaiarrereren garrantziari buruzko iritziak beste musikari, aditu eta lagunen ahotan jartzea nahiago izan duela gaineratu zuen.

Muñozek, halaber, Julian Gaiarrereren gaurkotatutako nabarmendu zuen atzoko agerraldian, eta Erronkariko tenorearen ahotsa biltzen duen grabaziorik ez izan arren, egun, oraindik, Alfredo Krauss edo Miguel Fleta bezalako tenoreen lanaz hitz egiteko Gaiarre dela erreferentzia azpimarratu zuen.

‘Musika Iruñeko katedralean’ bildumako azken diskoa kaleratu dute

■ XX. mendeko hainbat konpositore nafarren obrak biltzen ditu

Eduñe Elizondo / Iruñea

IRUÑEKO katedraleko Musika Kaperak *Musica en la catedral de Pamplona* (Musika Iruñeko katedralean) bildumako laugarren eta azken disko konpaktoa aurkeztu zuen atzo, aurreneko diskoaren edizio berrituarekin batera. Bildumak, orain arte argitara eman gabeko konpositore nafarren musika biltzen du, 1595etik 1999ra arte.

Iruñeko katedraleko Musika Kaperako zuzendari Aurelio Sagasetak aurkeztu zuen atzoko ekitaldian, XX. mendeko musikari eskaini bildumako laugarren disko konpaktoa; ezagutzera eman zuenez, Daniel Piudo, Bonifacio eta Pio Iraizoz, Felix Perez de Zabala, Jesus Rotellar, Jesus Garcia Leoz, Jose Maria Ariz eta Sagasetaren beraren piezak biltzen ditu azken diskoak. Aurrekoetan bezala, Pere Casullerasek zuzendu zuen grabazioa, Iruñeko katedralean.

Bildumako aurreneko diskoaren edizio berriatuari dagokionez, lehen edizioan jasotako XVIII. mendeko autore berak biltzen ditu, eta, gainera, Juan Antonio Mujikaren *Letanias a 8* izenburuko pieza. Iruñeko katedraleko Musika Kaperak iaz Donostiako Musika Hamabostaldian eman kontzertuan grabatu zuten obra hori.

Musika bildu eta azertu

Musika Iruñeko katedralean bildumako disko konpakto guztiak bertako Musika Kaperak grabatu ditu, Aurelio Sagasetaren zuzendaritzapean; *Miguel Navarro, XVI-XVII. mendeko* izenburuko bigarren diskoan, hala ere, Musika Kaperak ez zen protagonista bakarra izan, The Scholars talde ingelesa ere ari-tu baitzen grabazioan.

Konpositore nafarren piezak bildu ez ezik, obra horiei buruzko azterketa musikala ere jaso du *Musika Iruñeko katedralean* bildumak. Lan hori Musika Kaperako zuzendari Aurelio Sagasetak egin zuen.

Jon Kortazar: «Eleberri garaia bizi dugu euskal literaturan»

■ Gaztelerara itzuli du duela urte bi kaleratu zuen ‘Luma eta lurra’ euskal poesiari buruzko saiakera

Montse Arregi / Bilbo

JON KORTAZAR idazle bizkaitarrak duela urte bi argitaratu zuen *Luma eta lurra* liburuak, 1978-1995 urteen bitartean kaleratutako euskal poesiagintzaren inguruko saiakera lana. Orduan 55 poetaren lana eta 150 liburu aztertu zituen. Orain, Prames argitaletxearen eskutik lan haren gaztelerazko laburpena den *La pluma y la tierra* saiakera argitaratu du.

Atzo Bilbon aurkeztutako liburuon Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionaindia, Felipe Juaristi, Koldo Izagirre eta Tere Irastortza egileen lana-

ren inguruko azterlanak bildu ditu. Kortazarren ustez «euskal poesia garaikidean bost bide nagusi erakusten dituzte idazleok». 80ko hamarkadako euskal poesiagintzan azaltzen diren elementuak «garaion inguruan hausnarketa egiteko garrantzitsuak» direla adierazi zuen.

Jon Kortazarren arabera, gaur egun «eleberri garaia» bizi du euskal literaturak. «Poeta gazteei kosta egin zaie azaleratzea, eta gainera, orain gehiago zaintzen da argitaratzen denaren kalitatea», adierazi zuen Jon Kortazarrek berak atzo, Bilbon izan zen ekitaldian.



Jon Kortazar atzo, Bilboko Bidebarrieta Kulturgunean.